



Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkarte



Hemen zaude: Hasiera » Ekonomia » “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketaren irekiera ostiralean

## “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketaren irekiera ostiralean

noa 2016-05-10 Ekonomia, Ingurumena, Jendartea, Kultura 0 iruzkin

Askotan munduko txoko ezezagunenak bisitatzea joateko ehunka kilometro egiten baditugu ere, hemen, etxean bertan, ondare oso aberatsa dugu. Baina ez dugu ezagutzen. Dugunaz jabetu, ezagutu, zabaldu eta baloreen jartzen laguntzera dator, “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa. Sagardoaren Lurraldeak Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sustatutako erakusketa ibiltaria dugu honakoa. Hernanin izan zen ikusgai astebetez, apirila amaieran. Maiatzaren 13tik 22ra Usurbila izango dugu. Ostiral honetan inauguratuko da, 19:00etan Sutegiko aretoan. Xabier Arregi Usurbilgo Udaleko alkateak aurkezpena egin eta ondoren bisita gidatua egingo da erakusketan zehar, Lourdes Odriozola Sagardoetxeko historialariarekin.

“Erakusketa honetan gure ibaiak, Urumeak eta Oriak, sagardoaren inguruan, eta sagardoaren garraioan izandako garrantzia jaso da. Urte askotan, gure ibai hauek inguruko lurraldeetako bizitzaren antolakuntzan izan duten garrantzia”, zioen Luis Intxauspe Hernaniko alkateak, erakusketa udalerritan inauguratu zutenean. Oria eta Urumea ibaiak urte luzez gordetako sekretuak aireratzera datorren erakusketan, Usurbili loturiko erreferentzia bat baino gehiago aurkituko dugu.

Udal, probintzia eta estatuko artxiboetan eginiko ikerketen emaitza da “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” egitasmoa. Orain arte ezezagunak ziren hainbat datu interesgarri eta bitxiak bilduma. Aipaturiko bi ibaiak, “komunikaziorako giltzarriak izan dira eta harreman ekonomikoak eta sozialak eratzeko erabili izan dira. Iraganean, ibaiak bizitza nahiz “aberastasunaren iturri” eta aintzinako “autobideak” izan ziren. Urumea eta Oria Gipuzkoako bi ibai nagusiak, “sagardo ibaiak” eta teknologikoki puntako guneak izan ziren aintzina. Portu-instalazio eta zerbitzuak izan zituzten, beren ur bazterretan salerosketa gune ugari izan ziren eta asko izan ziren beren ur ertzetan gertatutako istorio harrigarri eta bitxiak. Esaterako: XVIII. mendeko langileen greba, Ergobiako bidesarian ordaindu behar zen tasa, itsasoa eta portuekin erlazioaturiko zenbait ogibidetan soldataren zati bat ordaintzeko sagardoa erabiltzea, Astigarragako alkate bizargina eta Murgjiako Jaunen haserre, Ignacio de Soroa unzigile usurbildar ospetsuaren amodio-kontuak...”.

### Erakusketa, herriz herri

-Usurbilen maiatzaren 13tik 22ra, Sutegi erakustaretoan: asteazketatik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara;

idatzi bilaketa irizpidea

### Eguraldia Usurbilen

Osteguna



16° 10°




16 km/h

### Agenda

- MAI 13** ol.
  - 17:00 Maiatzaren 29ko giza-katerako iz...
  - 19:00 “Sagardo ibaiak, bizitza iturri”...
- MAI 14** Ir.
  - egun osoa Eskubaloia Kiroldogian
  - egun osoa Maiatzaren 29ko giza-katerako iz...
  - 11:00 Ate irekien eguna, Lanbide Eskolan
  - 11:00 Usurbilgo 44. Pilota Txapelketa
  - 12:00 Futbola Haranen
- MAI 15** ig.
  - egun osoa San Ixidro Eguna
  - 9:15 Eskubaloia Kiroldogian
  - 10:00 Futbola Haranen

Egutegia ikusi →



larunbatean 12:00etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara, eta igandean 12:00etik 13:30etara.

-Astigarragan irailean.

-2017. urtean, Donostiako Aquarium-ean.

Antolatzaileak: Sagardoaren Lurralde; Usurbil, Hernani eta Astigarragako Udalak; Donostiako Aquarium-a.



#### 4. Sagastiak Loretan

##### Maiatzak 15, igandea

**10:00** Mikel Olano, txorietan adituaren emanaldia Saizar sagardotegian.

**Ondoren**, taldea Anaerrekara txorien kantuak entzutera.

**10:30** Pilota partidak (Usurbilgo lehen mailako txapelketako bi partida).

**11:00** Herriko ekoizleen azoka irekiera trikitalariek.

**12:00** Meza Salbatore elizan.

**12:30** Hamaiketakoa, Bordatxuriko oilaskoak (LumaGorri).

**13:30** Bertso saioa: Amets Arzallus eta Elixabete Pagola.

**14:30** Bertso-Bazkaria Saizar sagardotegian.

(Txartelak salgai Alkartasuna Kooperatiban eta NOAUA!n, maiatzak 11 arte. Prezioa: 30 €). Menua:

-Bakailao-tortilla.

-Bakailao frijitua piper berdeekin.

-Idi txuleta.

-Gazta, intxaurrak eta irasagarra.

-Teilak eta zigarrotxoak.

-Ura, sagardoa, ardoa eta kafea.

**17:30** Herri kirolak: emakume eta gizon proba. Aizkora, trontza eta txinga lehiaketa.

**18:00** Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.

**Oharra:** eguraldiaren arabera, goizeko ekitaldia herriko plazan edo Askatasuna plazan egin daiteke.

Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Noaua! Kultur Elkartea eta LumaGorri.

##### Maiatzak 19, osteguna

**11:00** Euskal Herriko Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpena Potxoenean.

##### Maiatzak 22, igandea: 35. Sagardo Eguna

**10:30** "Sagardotegia, gure kolejiyua" kantatu zuen Udarregi bertsolariaren oroimenez Remigio mendiburuen eskultura jarri zela 50 urte gogoratzeko ekitaldia.

**11:00** Potxoenea atarian duela 20 urte egindako Noaua!ko bazkideen argazkia berrituko dugu.

**11:30** Hasiera ekitaldia Noaua!ren eskutik.

**Goizean zehar**, frontoian herriko baserritarrak eta beste sagardogileak izango dira, Dema plazan Gipuzkoako sagardogileen elkarteko postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera izango da. Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.

**12:00-13:30** "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa Sutegiko erakustaretoan.



## Komunitatea

Juanjo Lertxundi 2016-05-06

Ezkila joka dabil

Bizi oraina, duzun momentu bakarra baita. Zure arreta hemen eta orain dagoen honetan



Juanjo Lertxundi 2016-04-29

ADOREA

Zure denbora mugatua da, beraz ez alferrik galtzera utzi beste pertsona baten bizitza



Sutegi Udal Liburutegia 2016-04-28

V GAZTELERAZKO LITERATURA-TOPAKETA, NADA LIBURUAZ

Ekainaren 1ean (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-04-25

Ametz handiak egin, txikitik hasi, eta ekin berehala!

Ametz handiak egin, txikitik hasi, eta ekin



Juanjo Lertxundi 2016-04-20

Non zaude orain?

Meditatzerakoan ez gara gizartetik aldentzen, ez dugu jendartetik ihes egiten; aitzitik,



Juanjo Lertxundi 2016-04-06

LONGANIMIDAD

Ezagutzen al duzu Longanimidad kontzeptuaren esanahia? Hitz ezezaguna da



Juanjo Lertxundi 2016-03-29

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean, azkar bukatu nahian pikutara botatzen du.

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean,



Juanjo Lertxundi 2016-03-23

Erronka ez datza denbora administratzean, gu geu administratzean baizik.

Erronka ez datza denbora administratzean,



Sutegi Udal Liburutegia 2016-03-18

Gazteentzako eleberrri sentimentalaren booma: Sutegi Udal Liburutegia eta Udarregi Ikastola elkarlanean



**18:00-21:00** "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

**Antolatzailea:** Sagardo Egunaren Lagunak.

#### Ekainak 4, larunbata

**09:00-13:00** Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko saioa Potxoenean: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak".

Bideratzailea: Aitor Etxeandia.

Oharra: saioa, otsailaren 27tik irailaren 10era antolatu den "Sagarrondotik Sagardora" ikastaro praktikoaren baitan egingo da. Ikastaro osoaren prezioa: 96 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Saio solteetan izen emateko aukera ere badago. Hurrengo saioak:

-Uztailak 9: "Zuhaitzen udako edo begiko txertaketa".

-Irailak 10: "Sagarraren heldutasun analisiak eta etxean sagardoa egiteko hastapenak".

Informazio gehiagorako eta izen emateko:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

[alkartasuna.eus](http://alkartasuna.eus)

Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

**Elkarlanean:** Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

## Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



## Utzi zure iruzkina

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak \* markatuta daude

Iruzkina

Izena \*

E-posta \*

Webgunea



CAPTCHA Code

\*

Iruzkina bidali

Juanjo Lertxundi 2016-03-18

#### Barneko kritikoa

Gizakiaren ahultasun handiena da gure burua gutxietsi egiten dugula. Pertsonaren arazo



IKUSIENAK   BERRIENAK   IRUZKINAK   ARTXIBOA



GuraSOS-en manifestua sinatzeko aukera zabalik  
Larunbatean Lasarte-Oriako



Erraustegiaren baimen bateratuari errekurtoak aurkezteko aukera udal errejistroan, asteazkena baino



GuraSOS: "Erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu" Zubietan eraiki asmo duten




Hurbilgoren apirileko zozketak, zenbaki sarituak ditu Hurbilago Usurbilgo ostalari eta




Erraustegiaren aurkako giza-katea, maiatzaren 29an  
"Maiatzaren 29an, berriz, gure

## Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak



### Azken argazkiak



### Albiste nabarmenduak



Usurbil K.E.-ko senior neskek, Euskadiko txapeldunak  
 Asteburuan zehar Oiardo Kiroldegian ikatu den azken faseko bihurtuak.



Erraustegiaren aurkako giza-katea, maiatzaren 29an  
 “Maiatzaren 29an, berriz, gure abetea ezin entzunarazteko aukera”



“Erabakiaren bidea lantzen jarraitu nahi dugu”  
 Ospatu berri den “Borondateen Kricailuak” ekitaldia datorrenaren



Herri galdeketerako bidea argitzen  
 Ostiral iluntzea argitu berri da, herritarrek airearatu dituzten desioak.

### Webmapa

- > [Agenda](#)
- > [Aldizkaria](#)
- > [Argazkitegia](#)
- > [Komunitatea](#)
- > [Merkatu txikia](#)
- > [Noaua TB](#)
- > [Noaua!](#)
- > [Zorion agurrak](#)
- > [Zerbitzuak](#)

### Artxiboa


Artxiboa



**Noaua Kultur Elkartea**

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
 Tf: 943 360 321 [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)  
 © 2016 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



Cookie-ak erabiltzen ditugu nabigazio esperientzia hobetzeko eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, ulertuko dugu horien erabilera onartzen duzula.

[Ados](#)